

BALIO PROPOSAMENA

Egungo gizartea erloju kontrakoa da eta nahi ditugun ekintza guztiak egiteko denbora nahikoa ez dugu. Esate baterako, hizkuntza bat ikasteko akademia batera joateko denbora ez dugu. Zorionez Interneti eta aurrerapen teknologikoei esker ordenagailua, mugikorra, tableta edota telebista hartu eta beharrezkoa edo gustukoa dugun hizkuntza hori ikasten has gaitezke. Halaber, hizkuntza horretan trebatzeko ez dugu aukera handirik eta lan munduaren exijentzia maila handiak are gehiago zailtzen du akats egiteko aukera egotea. Hori dela eta, erabiltzailea bere etxean egonda, lasaitasunean, ikasten ari den hizkuntza horretan trebatzeko aukera izango du. Aukera bikoitza gainera. Idatzizko lana egiteaz gain ahozko lana ere izango du. Honez gain, dakigun bezala denok ez dugu bidaiatzeko aukerarik izaten; bai egoera ekonomikoa dela eta, bai arestian aipatu bezala, denbora faltagatik. Hori guztia kontuan hartuz, erabiltzaileak bertakoekin hitz egiteko aukera izango du; modurik onena ikasteko hitz eginez baita.

Gure ikasleak ez dira ikasle arruntak izango, hots, zenbaki baten bidez identifikatzen direnak eta guztiek metodo, azalpen eta ariketa berdinak jasoko dituztenak. Gure ikasleek haien bilakaeraren arabera izango den ikasketa plan pertsonalizatua izango dute. Bestalde, ikasten hastean, aukera anitzak izango dituzte. Badakigu denek ez dituztela erraztasun edo zailtasun berberak; horregatik, hasieran euren ezagutza maila neurtzeko hainbat azterketa egingo dira hizkuntza batek izan ditzakeen arlo guztien inguruan; esaterako, entzumena, ulermena, idazmena eta ahozkoa. Hori kontuan izanda, ikasle bakoitzak gehien kostatzen zaion atala sendotzeko aukera izango du irakaslearen arreta pertsonalizatu baten bidez egunaren 24 orduetan zehar. Erabiltzaileek duten jomuga lortzearen eta haien bilakaera linguistikoaren berri izan dezaten, egindako lanaren *feedback*-a eskainiko zaie.

Argi dago faktore garrantzitsuenetako bat, zerbitzuaren kostua zein izango den zehaztea dela. Gure ikasleei zerbitzu hoberena prezio ezin hobean eskaini nahi diegu jakinduria eta arrakasta lor dezaten. Dena den, badakigu ikasle guztiek ez dituztela behar berak izango eta horregatik hiru ikasketa plan eskaintzen ditugu. Lehenik eta behin, soilik hitz egiteko klaseak biltzen dituen plana eta horren kostua 14,99€/hilabetekoa izango da. Lehen hori aproposa izango litzateke haien hitz egiteko trebetasuna hobetzeko asmoa dutenentzako. Beste hainbatek soilik azalpen teorikoen beharra izango luke eta prezioa, 19,99€/hilabetean. Azkenik, plan osatuena daukagu eta hurreko biak uztartzen dituen da. Azalpen teorikoak eta hitz egiteko klaseak konbinatzen dituen plana. Azken horren prezioa 29,99€/hilabetekoa izango litzateke eta oso aproposa izango zen hizkuntza bat esparru anitzetan erabiltzen jakin nahi duen batentzat. Halaber, plan intentsiboak eskainiko ditugu.

ZERBITZUA	PREZIOA
Hitz egiteko klaseak	14,99€/hil.
Azalpen teorikoak	19,99€/hil.
Azalpen teorikoak + Hitz egiteko klaseak	29,99€/hil.
Kurtso intentsiboak	
• Aste 1	12,99€
• 2 aste	22,99€
• 3 aste	29,99€